

Aretxabaleta,  
1992ko maiatzak 7

# Aretxagazeta

Josefina,  
Atxabaltako amama

- Ojala-zelaiko erromeria
- Taldeetatik: Zaraia mendizale taldea
- Atxabaltartua: Fernando Iglesias



Gero eta kontserbadorea-  
goak gara gazteok. Badira  
hiru sindrome herriko  
gazteen artean nagusitzen  
ari direnak eta horiei

**Konserbadore  
izatea ez da  
P-z hasten  
diren  
partiduei  
botoa  
ematea  
bakarrik.**

## Hiru sindrome

buruzko pajeotxo bat egin behar dut. H2ROCK sindromea da bat: Sentsazio barriak sentitzeko irrika. Logika horretan daude parapentea, eskia, surfa, puentina, alpinismoa, kainoiak jeistea eta horiek denak. Sentsazioak lortzeko bertako leku batzuk probatuta gero, urrunago goaz sentsazio fuertea goen bila, herri exotikoetara (pobreak normalean). Bigarren pauso honetarako diru apur bat gehiago bakarrik behar dugu okzidentalok, hau da, atxabaltarrok. Hori da Paris-Dakar sindromea. Bigarren joera hau, egia esan zahartxoagoena da. Baina gazteen

espektatiba. Nahiko diru irabazten dugunerako.

Zela lotzen da hau kontserbadore izatearekin? Energiak sentsazio fuertetara bideratzea, lan ideologiko eta soziala uztea delako. Eta bi sindromeok, gero eta gehiago, kontsumoaren logikan sartzen direlako. Kontserbadorea izatea ez da P-z hasten diren partiduei botoa ematea bakarrik. Aretxabaletako gazte normalak ikasi egiten du lanpostu ona lortzeko eta asteburuak kirolez betetzen ditu. Politikaz eta gizariteaz no sabe-no con-testa. Entrenamentuak,

partiduak, eta telebistako kirol programak. Horra hirugarren sindromea: kirolez kirol sindromea.

Bienbitartean Aretxabaletan ez dago talde feministarik, ez talde antimilitaristik, kristau taldeetan jende gutxi. Dauden beste taldeetan problema nagusia jendea topatzea da. Gaztea zara? Probatu borondatezko taldeko lana. Nik dakidala behintzat Beinke eta Hirugarren Mundu Taldea zabalik daude. Borondatezko lanak ez du H2ROCK eta kirolez kirolerako aukera kentzen. Eta sentsazio barria izan liteke.

**Jon Sarasua  
kazetaria**

### Aretxagazeta

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tlnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos  
**Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Agurtzane Elkorro, **Argazkiak:** Josu Lazkano **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabettia, Beinke, Udala **Inprimategia:** Gertu Koop E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

# Zer daukazu esateko?



**Mario Unanue**  
( langilea )

Kiroltxean dauden instalazioak gutxi dira Atxabaltarako. Squasheko pistak oso egoera txarrean daude.



**Josu Sarasua**  
( ikaslea )

lbarako proiektua ez zait serioa iruditzen. Futbolzelaia dagoen lekua ondo dago.

Etxeak han goian egitea, kriston obrak egitea, txarto pentsetan jat.



**Blanqui Gonzalez de la Rota**  
(etxeakoandrea)

○ Malkorreko etxeekin, ez dakit zer gertatzen den. Batzuk esaten dute, eurek dirua eman behar dutela orain, eta gu hemen itxoitzen.

Nik erantzun bat gura nuke.



**Igone Zalora**  
(ikaslea)

Herrian parke gehiago jartea eta industria gutxiago egitea. Eta pista bat jartzea gu patinek in ibiltzeko.

## KARTAK

### Emakumeak kulturaren partehartu guran

Hau mundu matxista hau!

Ohiturak direla, edo bestea dela, beti emakumeok fastidiatu egin behar!

Gogoratzen haiz Santa Ageda "mutilak" gure adinekoak zirenean, gu biok ere dantzan, juerga eta abar gura geginan egin, baina alferrik...! SANTA AGEDA MUTILAK !!

Orain berriz, barregura ematen zidan, urte batzuk pasatu eta gero ez dinagu mutilik herrian tantaia jasotzeko.

Orduantxe kulturaren edukiko dinagu parte hartzerik?

*Arin.*

### Atxabaltan razismoa?

Aspaldi honetan neure buruari bueltak ematen, arrazismoa somatu dut Atxabaltan.

Eta lehengo Aretxagazeta batean irakurri banuen ere atxabaltarrak umilak ginela, nire ustez harrotasun handia dago. Ez da berdina Sarasua abizena izatea edo Perez. Beraz ez gara berdinak. Eta ez hori bakarrik, behin, batek esan zidan,

nahizetaeuskalduna izan "Basko" izateko 8 abizen eduki behar zirela euskaldunak.

*Agin.*

Orrialde honetan kartak argitaratu gura badituzue, zuzendu gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara. Animatu zaitzte.



## Otala-zelaiko erromeria

Aurten, urteroko moduan, Otala -zelaiko jaiak ospatuko dira, maiatzaren 17an. Bertan ekintza ugari egongo dira denondako, goizetik gaberaino, Aretxabaletako Udal Kultura Batzordeak antolatuta.

Goizeko 10etan, jaietan hasiera emateko Aretxabaletako txistulariekin kalejira egingo da. 10,30etan Mountainbike

urteera. 11,30etatik 1etara animaliekin jolasak egongo dira Otala-zelain eta gero bertso-lariak.

Arratsaldean, bostetan gutxi gora behera, Loramendi dantza Taldearen eskutik dantza saioa eta gero 5. Sokatira Txapelketa. 6,30etan hirugarren Patata Tortila txapelketa. 8,30ak arte Saltsamaltzarekin

dantzaldia Otala-Zelain.

Jaietan bukaera emateko, 9-,30etatik 12,30etara, Durana kalean Saltsamaltza taldearekin gura dutenek dantza egiteko aukera edukiko dute.

Haurrek ere euren aukera izango dute jaietan haur ondo pasetako. Goizeko 11,30etatik arratsaldeko 5ak arte Gaztelu Puzkagarria

izango dute eta.

Jai egun polit horretan, bertan bazkaltzen animetan den jendearendako, honako zerbitzu hauek eskaintzen dizkizue Aretxabaletako Udal Kultura Batzordeak: taberna, musika, umeentzako sariak...

Egun zoragarri horretarako antolatzaileek Patata Tortila Txapelketa ere antolatu dute, eta sari inportanteak izango dira: 16 urterarte, 1. saria 4.000 pztakoa, 2. saria 3.000 pztakoa eta 3. saria 2.000 pztakoa. 16 urtetik gorakoendako, 1. saria 5.000 pza, 2. 4.000 pza eta azkenik hirugarrena 3.000 pza. Partehartzaileek ordu bete izango dute tortila egiteko eta 7,15etan irabazlearen izenak jakingo dira.

Guzti horrekin aurten Otala-zelaiko jaietan jende ugari elkartzea espero da. Ea jendea animetan den eta egun zoragarri bat pasatzera Otala -Zelaira igoten duen.



**OYAR**

Zaraia, 4  
Tfnoa: 79 15 70

**BENGA**  
**Mertzzeria**

Durana, 13  
Tfnoa: 792100  
**ARETXABALETA**

**IMANOL ALTUBE**

**ELEKTRA**  
**INSTALAKUNTZAK**

Durana, 36  
Tfnoa: 79 10 60  
**ARETXABALETA**

**TXIKIA**



Santa Kurtz, 13  
**ARETXABALETA**



## Lekunberri aita-alabak finalera

Joan zen maiatzaren 3an, arratsaldeko laurretan OIartzungo Madalen Soro pilotalekuan Gipuzkoako kantu txapelketaren erdifinala izan zen. Bertara Juan Luis eta Bego Lekunberri aurkeztu ziren. "Kasualitatez komunikabideetan txapelketaren berri jakinda, aurkeztea erabaki genuen, ezer gutxi galduko genuelako".

8 partaide izan ziren, eta atxabaltar bi hauek finalerako sailkatu ziren. Orain, finala Donibane Lohitzunen, ekainaren 28an izango da. "Badakigu ia ezinezkoa dela txapelketan lehenengo gelditzea, asko izango dira par-

tehartzaileak, baina gu joan egingo gara kiroltasunez beterik eta Aretxabaletaren izena ahal dugun ondoen zuteko asmotan".

Ea denon artean animetan ditugun eta eurek uste baino aurrerago geratzen diren. Nahiz eta eurek esperantza gutxi euki eta "hobby" bezela baka- rrik euki. "Guk badakigu ez dagoela hortik bizitzerik, beraz, gure "hobby"ari errentagarritasun apur bat emateko eta gure atseginbiderako balio badu ondo etorria izan dadila".

## Herri urratserako autobusak

Datorren maiatzaren 10ean, urteroko moduan, Senperen Herri Urrats ospatuko da. Hori dela eta Beinkek, autobusak jarriko ditu.

Bat zapatuan, maiatzaren 9an, bazkalostean urteteko, arratsaldeko 3etan. Izena emateko epea eguenean bukatuko da, eta horretarako tokia Beinke eta Urbaltz taberna dira. Autobus horren prezioa 1700 pezetatakoa izango da.

Bigarren autobusak, domekan maiatzaren 10ean goizeko 7,45etan urtengo du. Izen emateko epea eguakotxean, arratsaldeko 6etan bukatuko da, eta horretarako lekuak lehengo berberak izango dira. Prezioa 900 pezetatakoa da.

Informazio gehiago edo zehatzago Beinken emango da.

- Maiatzaren 16an 72ko kintoak, afaria egingo dute denak elkartzeko. Afari horretara joan gura duenak maiatzaren 8rako, Urbaltz tabernan eman beharko du izena.

- Maiatzean, Udal Kultura Batzordeak eta Gaztetxeak antolatuta, antzerki hilabetea egingo da. Hilabete horretan, mimo ikastaroa izango da Peter Roberts-en eskutik. Maiatzaren 9 eta 16an arratsaldeko 4etatik 8etara eta maiatzaren 10 eta 17an goizeko 11etatik ordu 2etara. Izen ematea Gaztetxean eta Kultur-etxean.

**IRIARTE**  
Umeen denda



DURANA, 8  
Tfnoa: 79 10 96

**ZARE**


ARTEGINTZA

Lezama merkatal  
zentrua, 14

**MIREN & ZURINE**  
BITXIEN DISEINUA

Otalora kalea, 4 - Tfnoa: 77 13 57  
**ARETXABALETA**

BITXITEGIA



## Plazako bankuak apurtuta

Aste Santuko operren ostean, plazan bankuak apurtuta agertu ziren. Itxuragatik, gurata apurtuta daudela ematen du, behar bada gura bari-rik, baina egun batetik

bestera apurtuta agertu ziren.

Plazan egoten den jendea nahiko haserre dago, banku batzuk apurtzeak zentzu handia ez daukalako.



## Manolo - Teresa, 50 urte elkarrekin

Joan zen apirilaren 30ean Manolo Gorostia-gak eta Teresa Larrañaga-gak 50 urte egin zuten ezkontuta. Orain 50 urteko ezkontza, Santa

Marina, Bergarako elizan izan zen eta bazkaria Bergarako Gazpar tabernan.

Zorionak, Manolo eta Teresa.

## UDALETIK

### Ikasteko laguntzak

Udalak, 18tik 25 urtera bitarteko atxabaltarrendako edo Erdi Mailako Ikasketak egiten dabilenendako, Gipuzkoako Foru aldundiak konbokatutako lehiaketa baten barri eman gura du. Oinarri horien arabera, atzerrian hizkuntzen ikasketak zabaltzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzak jaso ahal izango dituzte apuntetan direnek.

deei diru laguntza (Beinke, Murruxiko, UDA, guraso elkarte...) 9.000.000; Euskaltegia 5.500.000.

Ongizate saila: (pobreziaren aurkako kanpaina, Etxez-etxeko laguntza, drogomenpekotasun kanpaina eta diru Laguntzak...) 13.683.000; Urats-Gain Zaharren Egoitza 13.500.000.

### Errolda

1992ko Apirilaren 15ean Estadistika Zentrutik, Martxoak 1eko dataz Atxabaltari dagozkion errolda datu ofizialak bidali dizkigute, eta honako hauek dira:

Atxabaltan 6.135 pertsona bizi gara, haue-tako 3.127 gizonezkoak eta 3.008 emakumezko. 6.135 biztanle hauetatik, 5.705 pertsona kalean bizi dira eta 430 baserri auzoetan. Galartza da auzorik populatuena 66 biztanlerekin, eta txiki-ena Izurieta 19 biztanlerekin.

Jaiotzez 6.135 biztanletatik 4.600 pertsona Atxabaltan edota Euskal Herrian jaiotakoak dira eta 1.535 Euskal Herritik kanpo jaiotakoak.

**Inguruko herriekin konparatuz**

### 1991ko Udaleko kontuak

Atxabaltarrek Udalaren dirua zertan gastatzen den jakin dezaten hona hemen 1991. urtean hainbat partidatan erabilitako diruak. Zer esanik ez, partida gehi-ago daude, baina hauek dira behar bada gehien ikusten direnak.

Gastu arruntak: Jarleku eta zakarrontziak 1.000.000; Argia (kaleetan) 5.850.000; Zabor bilketa 11.742.000 Etxe-aurrekaldeen garbiketa (fatxadak) 300.000; Lorategien mantenimendua 6.500.000

Kultura eta Kirol saila: Kiroletxea 11.234.000; Kultur tal-



## Zaraia mendizale taldea, mendira begira

Orain dela lau bat urte sortu zen Zaraia Mendizale Taldea. Beste mendizale taldeen moduan, mendizalr talde honen helburua mendizaletasuna praktikatzea eta indartzea da, gure inguruak eta historia ezagutuaz.

### Ekintzak

Lehen aitatutako

helburuak lortzeko asmoaz, urtean zehar honako ekintza hauek antolatzen ditu Zaraia Mendizale Taldeak: domeketan mendi urteerak, bidaia kulturalak, (museo, monumentu, haitzulo...) ikastaroak, kanpamenduak, pelekulak...

Zaraia taldeak, bere baliabideak kontutan hartuta, aisialdi edo asti

librerako alternatibak eskaini gura ditu atxabaltar guztiendako eta horretan ahalegintzen da urte guztian zehar.

### Sailak

Zuzendaritza batzordeaz aparte, sail desberdinetan banatuta dago mendizale elkarte hau: "Idatzizko dokumentazio eta bilketa", "Mapagin-

tza", "Ingurugiroa" eta "gazteak"

Sail guztietan editen dena azaltzea luze joango litzatekeenez, adibidez sail bat hartuko dugu bere helburu eta ekintzak espliketako. "Gazteak" izeneko sailak, gazteendako bereziki zuzendutako ekintzak eta eskursioak antolatu eta bultzatzen ditu. Hona hemen ekintza batzuk: eskalada eta orientazio ikastaroak, kanpamenduak, jokoak, lehiaketak...

Urtean zehar egiten dituzten ekintzak asko dira. Datorren hilean, adibidez, "Aretxabale-tako inguruak ezagutzen" programarekin jarraituko dute, eta ekintza berezi horretarako Argazki Ralliya antolatu dute, gure inguruak argazkien bitartez ere ezagutzeko aukera euki dezagun.

Hala ere, artikulua hau irakurrita gero Zaraia mendizale taldea hobeto ezagutu gura duenak, Elkar-teak daukan lokalera jo dezake, Nafarroa kalean 4.ean dagoen lokalera.

VALDEZATE  
TABERNA

ZURE ZERBITZUAN

Bizkaia 5

ARETXABALETA

LASA AGUILERA  
AHOLKULARITZA

Andra Mari Auzunea  
Tfnua: 72 29 26

ARETXABALETA



LENIZ

LIBURUDENDA

HERRIKO  
PLAZA

TfNOA:  
791616

ARETXABALETA  
ITURGINTZA

Durana, 16  
Tfnua: 79 17 53  
ARETXABALETA

Atxabaltan badaukagu emakume bat, beste guztiok baino hobeto ezagutzen duena herria. Emakume honek 97 urte dauka, eta Atxabaltako zaharrena da. Denbora guzti horretan etxe berean bizitakoa gainera. Emakume horren barri erakusteko berarekin egon gara berbetan.

- Zenbat urte?
- 97. Abenduaren 7an 98 urte egiteko.
- Zelan zaude osasunez?



## "97 urte daroat etxe berean"

• Oso ondo. Etxean ondo moldetan naiz aurrera eta atzera. Goizetan, neure semearekin batera jaikitzen naiz, bazkaria egiten dut eta bazkal ostean telebista apur batean ikusita gero, afaria prestatzen hasten naiz. Neguan ez dut kalera urteten, baina udan, nire semearen laguntzaz, plazara pasietan eta mezataria joaten naiz.

• Oso ondo idazten eiz duzu.

• Orain, ez dut idazten. 90 urterarte ondo ikusten nuen, baina orain urteekin bista galduz noa eta ez dut asko ikusten. Baina

lehen asko irakurtzen nituen periodikoak, eta liburuak.

Josten ere denbora luzea pasetan nuen, gantxiloa egiten.

• Etxe honetan jaio eta bizi izan zara beti?

• Bai, etxe honetan jaiotakoa naiz. Akordetan naiz, hemen aldamenean etxe bat bakarrik zegoela, Santisen konfiteria. Atzekaldean patioa zegoen eta abadeak hor pasetan zuen arratsaldea, jokuan. Orain plaza dagoen lekuan ortuak zeuden eta atzean orain eskolak dauden lekuan, orduan ere eskolak zeuden, baina txikiagoak.

• Lehen Atxabaltan non zeuden eskolak?

• Lehenengoak udaletxe zaharrean. Goiz eta arratsaldean joaten ginen, 14 urterarte, eta gero fabrikara. Beste batzuk eskolara joan ere ez zirén egiten.

• Zu ere fabrikara?

• Ez, ni gerra denborararte ez nintzen joan. Amak, ez zekien idazten eta Otazuenera askotan idatzi behar zen. Astero-astero oiluak bidaltzen zituzten baserrikoek Otazuenera, errenta ordaintzeko. Ez zekien idazten, eta gurera etortzen ziren, nik idazteko, beraz, etxean egon behar nuen. Baserritar asko etorten zen idazteko eskatzen, orduan gutxi zekien idazten eta.

Gero Romaldueneko zapaterian sartu nintzen lanean, soldaduendako "tatxuelak" jotzen. Hasieran belauetan egiten genituen, aparatu bat ekarri arte, eta belauak handi-handi eginda joaten ginen etxera. Lan hau egiteagatik 3 pezeta eguneko soldata geneukan. Arruenean 5 pezeta ematen zutela eta batzuk Arruenera joan ziren.

• Zure gazte denboran ze fabrika zeuden?

• Arruena, Laminazioa, Vasco Cerrajera eta Tubos. Baina jende gehiena labrantzatik bizi zen, herri guztian, kalean, ganaduak eta oiloak zeuden.

• Bainuetxeaz akordetan zara?

"lan egiteagatik 3 pezeta eguneko soldata geneukan".



• Bai, elegantea zen. Madriletik jende asko etorten zen. Madrildarrak herrira etorten zirenean igarten zen herrian. Esteibarrera ere "los Condes del Valle San Juan" etorten ziren, elegantea izaten zen.

• **Zer egiten zuen jende horrek?**

• Pasietan ibiltzen ziren, herrian asko disfrutetan zuten. Gurera ere etorten ziren, nire ama sukaldaria zen eta askotan egoten ziren hemen.

Domeketan bainuetxean orkesta egoten zen eta hara joaten ginen denok, anjelusak jo arte.

• **Orduan nortzuk izaten ziren alkateak?**

• Otazuenak, medikuak, abadeak. Hiru edo lau aberatsek agintzen zuten herrian.

• **Eta zelan konpontzen zineten ospital kontuekin?**

• Pobreak Donostiara joaten ziren. Bestela beheko ospitalera, kanposantu ondoko ospitalera.

• **Medizina aldetik ere asko aldatu dira gauzak ez?**

• Bai, orduan mediku bat bakarrik zegoen herrian eta operetako dirurik ez. Haurdunaldian, umea euki baino lehen, zortzi hilabete lehenago, dirua aurreratu behar zen, erditzea 5 duro kostetan zen eta itxulapikoan sartzen genuen aurreratutakoa.

• **Akordetan zara noiz ipini zuten trenak?**

• Bai, behin Donostiara kotxean joan nintzen eta trenaz etorri, 1919. urtean,

orduantxe ipini zuten. Ezkondu nintzenez ipini zuten. Akordetan naiz batzuk Bergarara joan zirela ezkon bidaian, eta joan etorria oinez egin zutela. Orduan, trenak ipini arte, Donostiara joatea pentsatu ere ezin zitekeen egin, ezkontzen ginenean bakarrik joaten ginen,

• **Eta kendu zutenean?**

• Orduan ia Gasteizera ere ezin ginen joan, gainera trenak beste bizitza bat ematen zion herriari.

• **Akordetan zara kotoxeaz?**

• Orduan dilijentziak zeuden, kotxea aberatsek bakarrik zeukaten hasieran.

• **Eta ura?**

• Ez orduan ez zegoen urik, ezta argirik ere. Argia ipini zutenean, farola bat ipini genuen, karua zelako. Norbaitek atea jotzen bazuen, farolaz joaten ginen, kable luze bati lotuta. Gainera ezkondu baino lehen ez zegoen argirik eta kandlekin ibiltzen ginen.

• **Gaztetan zelakoak ziren jaiak?**

• Andramaixetan, tanbolina, filarmonika jotzen zen plazan. Orain tristeak dira. Orduan jai egunetako lehenengo eta bigarren egunean gonbidatuak egoten ziren etxean, eta hirugarren egunean ezkonduak andreendako izaten zen, egun horretan dantzan egiten genuen eta gero kafea hartzen joaten ginen tabernara.

• **Beste ze jai ospatzen ziren?**



**Orduan etxeetan ez zegoen urik, ezta argirik ere. Kandlekin ibiltzen ginen etxetik.**

• Santa Agueda. Baina orduan gutxi ziren, herrian 20 bat familia zeuden bakarrik.

• **Ezkontzak oraingo modukoak izaten ziren?**

• Ez, Ni Atxabaltako elizan ezkondu nintzen, eta orduan inork ez zuen pentsetan gaurko moduan "a lo civil" ezkontzea. Gero bazkaria etxean izan zen, diru asko behar zen kanpoan bazkaltzeko. Oraingo moduko bodarik ez zegoen orduan.

• **Eta zer iruditzen zaizkizu oraingo gazteak?**

• Lehenagokoen aldean abantaila eta keja handiak dituzte. Lehen gu konforme, plazan dantza eginez gero eta orain bizio asko dago. Denek daukate kotxea, dirua... Lehen bakoitzak bere erropak egin behar zituen, eta orain dendara joan eta segituan erosten dituzte.

# Fernando Iglesias

## Galiziatik Atxabaltara

- **Edadea**
- 57 urte.
- **Non jaio zinen?**
- Coles, Orensen.
- **Noiz etorri zinen Atxabaltara?**
- 22 urterekin etorri nintzen.
- **Norekin etorri zinen?**
- Nire arreba Elenarekin.
- **Zergatik?**
- Nik Avilesen egiten nuen lan. Nire arreba Madrilén zegoen, baina ez zegoen gustora. Orduan Euskal Herrira etortzea pentsatu genuen, hemen lana zegoela entzuten zen.


Autobusa hartu eta Gasteizeraino etorri ginen. Gasteizeko geltokian geundela, letrero handi batean Aretxabaleta irakurri genuen, horrela ikusita, hainbeste letrarekin, herri inportante itxura zeukan eta horrela agertu ginen hemen.

### • Zure lehenengo lana non izan zen?

• Obretan. Gero Elman eta azkeneko 22 urteak kooperatiban.

### • Eta lehenengo lanak?

- Galiziako jendea eta



obretan nirekin lan egiten zutenak, elkarrekin lan eginda gero Toki-Onan bazkaltzen genuen.

### • Zure lehenengo inpresioa?

• Oso pobrea izan zen. Herri handia espero genuen. Dena oso zaharra eta txikia zen. Gero Asunzion, Santa Kurtz, San Miguel... egiten hasi ziren.

- **Euskarak ze**

### inpresio egin zizun?

• Banekien euskara oso gatxa zela, baina ona etorri eta entzun nuen askoz gatxagoa iruditu zitzaidan.

Arraroa ez, Galizian ere galegoz egiten da. Hasieran kalean galegoaren batekin geratzen nintzenez erderaz berba egin beharrean galegoz egiten nuen.

### • Herriminik bai?

- Urtero herrira joa-

tea eta hango lagunekin egotea gustetan zait. Baina bestela herriminik ez.

### • Ze alde dago zuk ezagututako Aretxabaleta eta oraingoaren artean?

• Orain Atxabalta asko handitu da, Lora-mendi, Lausitta, Santa Kurtz... hori denori berria da.

Trafikoaren egoera ere asko aldatu da, bariantea egin arte urte batzuetan Atxabaltan trafiko handia egon zen. Bariantea gauza positiboa izan zen.

### • Orduan ze alde zegoen zure herriko eta Aretxabaletako jendearen artean?

• Nire herrian jendea atzeratuta zegoen. Ni ere herritik urten baino lehen eskolan oso gutxi ibili nintzen. Han dirua zeukan jendeak bakkirik eroaten zituen umeak eskolara.

Desberdinatsuna hor ikusten zen, hemengo jendea eskolara gehiago joaten zen.

### • Ze alde dago hango usuario eta hemengoaren artean?

• Han jaietan, etxea leihotik botaten dute. Herriak euren artean haserre daude, eta besteak baino jai hobeak egiteko dirutza handia gastetan dute.

Gehien harritu ninduen usuarioa kintoena izan zen.



Pala txapelketa, zapatuan hasi zen, kiroletxean. Aurten, txapelketa horretan 16 bikote apuntatu dira. Partiduak zapatu eta domeketan izango dira 9,30etatik 1,30etara. Guztira egun bi hauetan 8 partidu jokatuko dira.

## Jubilatuak ere martxoso dabilta

Atxabaltan orain urte pare bat, Alfredo Meabe hasi zen jubilauntzako gimnasia ematen. "Gaur egun, 20 bat jubilatu dabilta, astelehen, eguazten eta eguakotxetan 10,30etatik aurrera". Klase horietara joateko, Kiroletxera joan behar da izena ematera eta medikuaren baimena euki behar dute.

Guzti hau Atxabaltako Udalak antolatuta dago, baina urte bitik behin Diputazioak ere bere laguntza ematen du. "Errekonozimendu bat egiten zaie doan eta txandal bat eskuratzen dute".

Alfredoren ustez, pertsona horientzat garrantzitsuena mugitzea da. "Bizitza normalean mugitzen ez dituzten artikulazioak, hiru ordu laurdenera mugitzea, eta modu berean flexibilitatea lantzea". Baina kontu handia euki behar da. "Jubilatuekin beti erritmo bera mantendu behar da, ez da bihotza fortzatu behar". Klaseak oso atseginak

izaten dira. "Eurak oso gustora daude, ez dira sekula kejetan. Askotan ni distrairu egiten naiz eta eurek ariketak egiten jarraitzen dute." Orain jubilatuak Olinpiada bat egin behar da ekainean Atxabaltan, bai-larako jubilatuak. "Olinpiada horretarako, Ibarra futbol zelaia, Kiroletxea, anexoa erabiliko dira, eta joku desberdinak egongo dira. Gero bazkaria eta dantzaldia egongo dira".

Joan zen aste bukaeran, UDAK garaipena lortu zuen Zumaian. Neskak ere Zumaiaetik 1 eta Oeko emaitzarekin bueltatu ziren etxera. Eta 21 utertik beherako taldeak ere garaipen bikaina lortu zuen etxean Eibartarrak taldearen aurka, 4 eta 1.



**Don Video**

AZKENENGO  
BERRIKUNTZAK

Loramendi, 10  
Tfnoa: 79 81 78

**IMANOL ARRAZOLA**

KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1.º D  
Tfnoa: 79 93 55



*Sport*  
**SASIAIN**

Zaraia, 4  
Tfnoa: 79 77 63

**Aretxabaleta**



Mende honetako 40. hamarkada tamalgarria "futbolaren sukarra" zabalzen ari zen gure herrian. hau zela eta, Atxabaltako gazte ausartek desafio bat bota zieten herriko "beteranoei" eta hauek, denbora asko galdu barik, aurrera eman zioten erasoari. Jokoan jarritakoa, norberaren ohorea barne, ez zen, ez txantxetakoa: 25 pezeta, ia ia hiru lane-guneko soldata!. Nahiko

beroa azaldu zitzairen 1941. urteko udazkenea atxabaltarrei!.

Partidua Gesalibarraren jokatu zen, baina Atxabaltan hasi zela esango bagenu ere, ez genuke hankarik sartuko, jokalariek Santagedarako bidaia oinez eta bizikletaz egin zuten eta. Beroketa trinko hau bukatu ondoren, taldeak Jorge Ugalde epailearen agindupean jarri ziren, lehiaketarako prest.

Mariano Otero, beterranoen golegilea eta kronika honen iturburu nagusiak, esan digunez, ez ziren txalorik falta Santagedako "stadium"-ean, partidua ikusgarria, ondo jokatu eta borrokatua izan zen eta. Norgehiagoketa, azkenean, 5 eta 3, beterranoen alde erabaki zen. Batzuei, beraz, ordaintzeko ordua heldu zitzairen, bada!. Baina ez zen horrela gertatu, ez;


gazteek, buruak hankak baino arinagoak zituztela erakutsiz, beterranoekin "atzerritar" bat aritu zela "konturatu" ziren eta, Anton Martinez de Agirrek ezik, ez zuten beren ausarkeriak ekarri zien zorra ordaindu.

Dena den, denok pozik geratu ziren: beterranoak, desafioa irabazi zutelako, eta gazteak, galduta zuten dirua euren patriketan geratu zelako.

Hona hemen, argazkian, beterranoen taldea: (zutik eta ezkerretatik hasita) Mariano Otero, Anjel Gabilondo, Ignacio Azkoitia, Jose Olabe, Luis Leanizbarrutia eta Eusebio Arrese; (makurtuta eta ezkerretatik hasita) Clemente del Teso, Jesus Herrasti, Isidro Etxeberria eta Vicente Bilbao Garcia-Etxabe.

Ea laster gazteen argazkia eta bertsioa jasotzeko aukera dugun!.

## KOMIKIA



## AMANTALAZ



### Legatza saltsan

Lau lagunentzako osagaiak:  
 oliba olioa  
 berakatz loditxoak  
 perrexila  
 legatz bat  
 almejak  
 ganba zuritua

#### Zelan egin:

Buztinezko lapiko batera olioa bota eta bero-bero dagoenean berakatz bota kolorea hartu arte. Orduan berakatz lapikotik atara.

Ostean, legatzari gatza bota eta su txikian ipini lapikoan. Eragin eta saltsa sendotu denean ardo txuria bota barrero ere eragiteko. Legatza erdi eginda dagoenean perrexila eta almejak bota.

Oraingoan sukaldaria: JUAN JESUS LOPEZ.  
 MIREIA ARRAINDEGIKOA.

## ERRETRATOAREKIN JOLASEAN

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.
- Asmetan dutenen artean Everest espedizioko jertse bat zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

**Ze baserritan dago argazkian agertzen den armarrria?**

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Arkarazoko palaziokua).



Aurreko lehiaketaren irabazlea KARLOS MARTIN izan da. Zorionak!

Erantzuna: .....

- Izen-abizenak: .....
- Helbidea: .....
- Tfnoa: .....

## 9 ZAPATUA

- Mimo ikastaroa, arratsaldeko 4etatik 8etara.

## 10 DOMEKA



- XIV. KROSS HERRIKOIA Urkulun. (10,30 haurrentzako krossa hasiko da eta 12,30etan Seniors, Juniors eta Beteranoendako, baita emakumeendako ere)

- Zikloturisten urteera: Aretxabaleta - Urbina - Gasteiz - Hueto de Arriba (84 Km).

- Futbol partidua: U.D.A - S.D. Ilintxa.

- Zaraia mendi taldearen urteera: Aitzorrotzera.

- Murrukixo mendizale elkartearen urteera: Larrun, " Herri Urratsera".

- Mimo ikastaroa, goizeko 10,30etatik ordu 2etara.

## 15 EGUAKOTXA

- Zaraia mendi taldearen eskutik, idazlan lehiaketaren sari bakaneta.

## 16 ZAPATUA

- Gaueko 10etan, Zaraia zineman, " PETER ROBERTS"-en aktuazioa.

- Mimo ikastaroa, arratsaldeko 4etatik 8etara.

## 17 DOMEKA

- OTALA ZELAI eguna.

- Murrukixo mendizale elkartearen urteera: Xoxotera.

- Zaraia mendi taldearen urteera Ojala - Zelaira izango da.

- Zikloturisten urteera: Aretxabaleta - Udana - Loiola - Aretxabaleta (88 Km).

- Mimo ikastaroa, goizeko 11etatik ordu 2etara.

# ARETXAZOKA

### Etxebizitzak

- Herriaren erdigunean kokatutako etxea salgai. Deitu: 79 64 93 telefonora.

- Langile batzuk etxebizitza bila gabiltza Aretxabaletan. Tfnoa: 77 04 58

- Bi oheko logela alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73

### Lana

- Atxabaltan neska bat behar da umeak zaintzeko. Tfnoa: 790476

- Atxabaltan andra euskalduna gertu umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 07 75.

### Salerosketak

- "Makario" markako egoera onean dagoen korredorezko bizikleta bat saltzen da. Oso merke. Tfnoa: 79 97 88

- Amstrad CPC 464entzako jokuak eta programak aldatuko nituzke. Interesatuak dei egin 79 42 95 telefonora.

**Orrialde honetako iragarkiak ( lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.**





**GARAJE  
OSKAR**  
Basabe poligonoa  
A - 2 - 4  
Tfnoa: 79 98 74

**ZARAIA TABERNA**  
GOIZEKO 5,30etatik  
ZURE ZERBITZUAN  
  
MANTEKA  
ANAIK

**BASABE  
JATETXEA**  
Menu eta afariak  
Industrialdea  
**ARETXABALETA**  
Tfnoa: 79 31 84

**GARAJE  
" EDER "**  
Karrozeria  
mekanikoa  
IBARRA Z/A  
Tfnoa: 791666  
**ARETXABALETA**

**Mobiliario**  
**ARENZA**  
BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA



**EROSKI**  
Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.  
DURANA ETA ARALAR KALEETAN  
Tfno: 79 16 05



**ARRIZABALAGA  
ARROZTEGIA**  
Sukaldeko altzairu eta armairu enpotratuak  
Tfnoa: 79 49 73 ARETXABALETA

**NERIAN**  
Loradenda  
Otalora, 14 behea  
Tfnoa: 79 70 66

**" HERRASTI "**  
AKEITA ETXEA  
**CAFES**  
*to Brasileira*  
Aralar kalea, 7  
Tfnoa: 79 32 83



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa: 79 79 79  
ARETXABALETA




Basabe poligonoa  
A - 15  
Tfnoa: 79 34 28



**Aretxabaletako  
industrialdea, S.A**  
Basabe poligonoa B-o  
Tfnoa: 79 62 80

**IBARRA ESTANKOA**  
TABAKO, IKAS MATERIAL ETA ZERGA  
INPRIMAKIEN SALMENTA  
Bizkaia, 3  
Tfnoa: 79 23 77  
ARETXABALETA



Bere Bezeroen zerbitzura  
Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 01 72

**ARETXABALETAKO**  
  
GAZTETXEA. Y A.G.A



# ATXABALTARRON ALDIZKARIA

Aretxagazeta Elkartea, Kultur-etxea.  
ARETXABALETA  
Tifnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila.